




ITURRI ONDOAN



2025



UZTAILEAN. PLAZA ZAHARREAN



“Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten,
beti berri den ura,
betiko iturri zaharretik”

(Joxean Artze)



Irtsi zaigu aurten ere udarari begira jartzeko unea. Udak egun luzeak, eguzkia, hondartza, lagunarte luzeagoak, eta disfrutatzeko garaia esan nahi du, gustagarriak zaizkigun gauzak egiteko denbora gehiago izatea. Eta horiekin guztiekin batera baita Iturri ondoan, gure Plaza Zaharrean, hainbat ekintzaz gozatzeko garaia dela ere. Egunerokoan dituzun kezkak alde batera utzi eta une goxo eta atseginak igarotzeko aukera.

Aurreko urteetako ildoari jarraituta, uztaileko ostiral gauetan bertsoak, musika, antzerkia eta hain berezia dugun Begiradak ikuskizunaz gozatzeko aukera izango duzu. Udako ekintzen artean dagoeneko errotuta dagoen egitasmoa, mimoz eta su-geldoan sukaldatua izan da, guztien gustagarri izan dadin.

Izarren azpian ikuskizun eder hauetaz disfrutatzeraz gonbidatu nahi zaitut. Hurbil zaitez Plaza Zaharrera, ez zaizu damutuko eta.

Alazne Txurruka Allika

Debako alkatea



Gai-jartzailea:
Leire Vargas
Bertsolariak:
Onintza Enbeita
Sustrai Colina
Nerea Ibarzabal

b e r t s o -
s a i o
e s p e k u -
l a t i b o a

Deba.
Iturri ondoan
Uztailak 4
22:00etan

consonni

Kultura kritikoa ekolizten eta argitaratzen dugu
www.consonni.org



BERTSOA

Bertso saio espekulatiboa

“ Bestelako munduak
imajinatzer
eraman nahi ditugu
ikusleak ”



Bestelako munduak, ekintza iraultzaileak eta aldaketa sakonak imajinatzer
eraman nahi ditugu ikusleak. Irudikatzeko gai bagara, ez dira ezinezkoak.

Bestelako ikuskizun bat, oraingoak baino zentzu handiagoa duen mundu bat
irudikatzeko aukera emango diguna.

Ikuskizunak diseinu eszeniko zaindua izango du bisualki eta sonoroki.

Bertsolariak: **Onintza Enbeita**, **Sustrai Colina** eta **Nerea Ibarzabal**

Gai-jartzailea: **Leire Vargas**



Leire Vargas

Uztailak **4**, ostirala • 22:00



ANTZERKIA

“Dada ü Lala”

Les Bobè Bobè Antzerki Taldea

“Umore absurdoa eta antzerki fisikoa dira gure identitate zigiluak”



Mundua ulertezina den garaietan bi emakumeei ulerterreza den, zentzua daukan eta koherentziadun zerbait eskatzen dieten momentuan sortzen den eka-tonbe artistikoaren eztanda. Boom grrr pum pam fliis! Txof... Hitzak ez du balio jada. Gu Dada ü Lala gara.

Dadaismoaren apurketarekin eta hizkuntzaren balio (ezarekin) konektatzen dugu. Zer moduz dena? Autentikoak izatea eta nahi duguna egitea da gure bitzita helburua.

Antzezleak: **Josune Velez de Mendizabal** eta **Ane Gebara**

Zuzendaria: **Jason Guerra**

Uztailak **11**, ostirala • 22:00



BEGIRADAK



Idazleak: Kanboko Xahar etxea,
Iraia Agirrezabala, Goltzane
Aizpurua, Eider Aldalur, Rexu
Arakistain, Joseba-Martin Ayala,
Ane Bastida, Nekane Gokoetxea,
Lilian Hirigoyen, Arantza Iriondo,
Xane Kreckelbergh-Gillentegi,
Itzale Laka, Maitena Saint-Pe,
Ainara Sedano, Mattin Urbieto,
Amaia Zinkunegi

Irudigileak: Inma Alberdi,
Anne-Sophie Baron, Ane
Bastida, Catherine Bouchard,
Esti Beristain, Iñaki Elosua eta
Manu Izagirre.

Dantza: Kulunka dantza taldea

Karrela: Irati Aibizu

**GAUEKO
22:00ETAN**

**ITURRI
ONDOAN**



Begiradak

12 urte jada BEGIRADAK antolatzen hasi ginenetik. Ordutik hona zenbat irudi, zenbat testu, zenbat kantu eta antzerki ikusi eta entzun ote ditugu, zenbat dantza... Herritarrek herritarrentzat sortuak guztiak, hartu-eman betean.

Herritarren saretzea eta sorkuntza helburu, bide berean jarraitzen dugu, kide zaharrei helduz eta berriak ekartzen saiatuz, kostatzen zaigun arren (aitor dezagun).

Dena den, aurtun, sorpresatxo batekin gatoz: Deba eta Kanboren arteko senidetze hitzarmenaren 25. urteurrena betetzen dela eta, hango herritarrak batuko zaizkigu egitasmora; irudigile zein idazle lanetan arituko diren zazpi partaide berri. Pozik eta gogotsu gaude, ikuspegi desberdinak, egiteko eta idazteko beste modu batzuk, hots diferenteak... *Begirada* berriak ekarriko dizkigutelako, ziur.

Ongi etorri, bada, kanboarrak! Hango eta hemengo herritarren artean harremanak josten hasteko hazi izango ote da *Begiradak*?

Uztailak **18**, ostirala • 22:00



Xiberoots

“ Euskal doinu tradizionalak reggaearekin nahastuta ”



Reggae musikaren bidez Euskal Herria eta euskara hedatzea da **XIBEROOTS** taldearen izatearen abiapuntua.

Taldeakide bakoitzaren nortasunak eta unibertsoak aberastuta, euskal doinu tradizionalak reggaearekin nahasten dituzte eta, elektro/hip-hop erritmoak, funky/transe baxuak eta 70eko hamarkadako giro progreak lagunduta, koherentzia eta oreka musikala lortzen saiatzen dira.


Jon «Pulpo» Etxekopar: Ahotsa • **Jordi «Dijor» Foucher:** Bateria •

Pette «JHA» aragoyen: Ahotsa / Gitarra / Txirula •

Sébastien «Seb» Delaporte: Baxua • **Peio Erramouspe:** Gitarra

Thierry «Titi» Faroppa: Perkusioa • **Txomin «Txo» Dhers:** Teklatua

Uztailak **24**, osteguna • 22:00



UZTAILEAN, PLAZA ZAHARREAN



DEBAKO UDALA



Iturri
ondoan